



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2023ko abenduaren 13a

46. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-23/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Plan berri bat igor dezan. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-23/MOC-00072. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sendagaien Europako Agentziak onetsitako medikamentu berrietarako sarbidea arindu diezaien horien beharra duten pazientei. Osoko Bilkurak onetsi du (2. or.).
- 11-23/MOC-00082. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa, eta herritarrei dei egiten baitzaie politikan era aktiboan parte hartzera. Osoko Bilkurak onetsi du (3. or.).
- 11-23/MOC-00049. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iruñerriko trenbidearen kiribilgunea kentzeko bidezkoak diren izapideak arindu ditzan. Lurralde Kohesiorako Batzordeak onetsi du (3. or.).
- 11-23/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita PFEZean neurri fiskalak har ditzan, lehenbiziko etxebizitza erosi ahal izatea errazte aldera. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).
- 11-23/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa eskualdatzea eska dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).
- 11-23/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita lidergo argia gauza dezan gure ekonomiarentzat eta etorkizunarentzat estrategikoak diren sektoreen garapenaren plangintzan eta zuzendaritzan. Osoko Bilkurak ezetsi du (4. or.).
- 11-23/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita botere-banaketa errespeta dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).

G S A I L A:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-23/ELC-00011. Lurralde Kohesiorako Batzordeak Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea (6. or.).

E saila:

INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

11-23/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Plan berri bat igor dezan

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 30ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Osasun Plan berri bat igor dezan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Osasun Plan berri bat igor dezan Parlamentuan eztabaidatu eta onets dadin, foru-erkidegoan indarrean dagoen legeriak ezartzen duenaren arabera".

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00072. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sendagaien Europako Agentziak onetsitako medikamentu berrietarako sarbidea arindu diezaien horien beharra duten pazienteei

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 30ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Sendagaien Europako Agentziak onetsitako medikamentu berrietarako sarbidea arindu diezaien horien beharra duten pazienteei. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1. Susta dezan, Osasun Departamentuaren bidez eta Osasun Ministerioaren Sendagaien Prezioen Ministerioarteko Batzordearen barruan, paziente onkologiko guztientzat EMAk baimendutako sendagaien onarpena bizkortzea, arreta berezia jarriz alternatiba terapeutikorik gabeko

mutazioen kasuetan eta hala behar duten beste paziente batzuetan.

2. Gure foru-erkidegoan bultza dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren bitartez, biriketako minbiziaren behaketa-proiektu pilotuaren hasiera, bularreko, koloneko eta umetokiaren lepoko minbiziak goiz detektatzeko gainontzeko programekin bat eginen duen populazio-programa bat ezartzeko aukera baloratzeko.

3. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan paziente onkologikoen medikuntza pertsonalizatua sustatzen jarrai dezan, diagnostiko molekularreko teknikak erabiliz".

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00082. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa, eta herritarrei dei egiten baitzaie politikan era aktiboan parte hartzera

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2023ko azaroaren 30ean onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa, eta herritarrei dei egiten baitzaie politikan era aktiboan parte hartzera. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du era aktiboan defenda dezan aniztasun politiko eta soziala gizarte demokratikoaren ezinbesteko oinarri gisa.

Nafarroako Parlamentuak Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako Depar-

tamentua premiatzen du Nafarroako unibertsitateekin egindako lankidetzak-hitzarmen baten bidez iker dezan Nafarroako zenbait herritan dagoen aniztasun politiko eta sozial eza, muturreko taldeek jarduera terroristak oroitzearen eta aurkari politikoa demonizatzearen ondorioz.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herritarak animatzen ditu Konstituzioak eta legeek aitortutako askatasun politikoak modu aktiboan erabiltzera eta bizitza politikoan aktiboki parte hartzera, batez ere udal-esparruan, hautagaitzetan libreki parte hartuz, beren ideien arabera eta errespetu-eta tolerantzia-giroan".

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00049. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iruñerriko trenbidearen kiribilgunea kentzeko bidezkoak diren izapideak arindu ditzan

LURRALDE KOHESIORAKO BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak 2023ko azaroaren 28an onetsitako erabaki hau, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Iruñerriko trenbidearen kiribilgunea kentzeko bidezkoak diren izapideak arindu ditzan. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak elkertasuna adierazten dio hildakoari, eta dolumina adierazten die familiari, lagunei eta Aizoango kuartel militarreko kideei.

Nafarroako Parlamentuak honako hau erabakitzen du:

– Nafarroako Gobernua premiatzea Iruñerriko trenbidearen kiribilgunea kentzeko bidezkoak diren izapideak arindu ditzan.

– Nafarroako Gobernua, Espainiako Gobernua eta ADIF presatzea berehala berrikus ditzaten egungo segurtasun neurriak, beste istripurik gerta ez dadin, neurriok areagotu beharko balira ere".

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-23/MOC-00068. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita PFEZean neurri fiskalak har ditzan, lehenbiziko etxebizitza
erosi ahal izatea errazte aldera***OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, ezetsi du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko Irene Royo Ortín andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiaetzen baita PFEZean neurri fiskalak har di-

tzan, lehenbiziko etxebizitza erosi ahal izatea errazte aldera. Mozioa 2023ko azaroaren 14ko 34. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-23/MOC-00077. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita Gizarte Segurantzako araubide ekonomikoaren kudeaketa
eskualdatzea eska dezan***OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Geroa Bai talde parlamentarioko Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako mozioa ezetsi du; horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaetzen da Gizarte Segurantzako araubide ekonomiko-

ren kudeaketa eskualdatzea eska dezan. Mozioa 2023ko azaroaren 24ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-23/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita lidergo argia gauza dezan gure ekonomiarentzat eta
etorkizunarentzat estrategikoak diren sektoreen garapenaren plangin-
tzan eta zuzendaritzan***OSOKO BILKURAK EZETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak aurkeztutako mozioa ezetsi du; horren bidez, Nafarroako Gobernua premiaetzen da lidergo argia gauza dezan gure ekonomiarentzat eta etorkizunarentzat

estrategikoak diren sektoreen garapenaren plangintzan eta zuzendaritzan. Mozioa 2023ko azaroaren 28ko 40. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-23/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita botere-banaketa errespetatu dezan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2023ko azaroaren 30ean egindako bilkuran, Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteko Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa ezetsi du; horren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen da botere-banaketa errespetatu dezan. Mozioa

2023ko azaroaren 28ko 40. Nafarroako Parla-mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-23/ELC-00011. Lurralde Kohesiorako Batzordeak Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan izanen dituen ordezkariak izendatzea

Nafarroako Parlamentuko Lurralde Kohesiorako Batzordeak, 2023ko azaroaren 28an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

1. Honako pertsona hauek izendatzea Lurralde Kohesiorako Batzordeko ordezkari Lurralde Politikaren Gizarte Kontseiluan:

– Javier Lecumberri Urabayen jauna, titularra, eta María Teresa Esporrín Las Heras andrea, ordezkoa.

– Lola Eslava Serrano andrea, titularra, eta Adolfo Araiz Flamarique jauna, ordezkoa.

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2023ko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias
